

Nafarkaria

• ostirala • 1997ko urriaren 3a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Sakanako emakumearen egoera laborala. • %30ek bakarrik dute lana.

Kotrapasa berriro ere Parlamentura. • Ehiztariak, noiz onartuko zain.

Gure aukerak. • Iruñeko Udalaren euskarazko sormen tailerrak.



Sexuaz

gozatzeko beste moduak

Hasierako trabak ahazturik, 'sex shop'-ek edo denda erotikoez badute arrakastarik nafarren artean. Oraindik sexua normalizatua ez badago ere, gizartearen zati batek kontsumitzen ditu hor eskaintzen diren produktuak. Gizarteak ez ezik, sexologoek ere gomendatzen dituzte, osasun iturri direlako.



Sakanako Emakumeen %30ek bakarrik daukate lana

Bailaran langabezian dauden emakumezkoen kopurua gizonezkoenaren bikoitza da

Emakumeari eta lanari buruzko ikerketa egin berri dute Sakanako Garapenerako Bulegoak eta Orientabide Profesionalerako Zerbitzuak.

Ikerketatik ateratako datuekin eta autoenpleguari buruzko datuekin, besteak beste, erakusketa mugikorra antolatu dute: Erakusketa Altsasu, Irurtzun, Etxarri-Aranatz eta Olaztin ikusteko aukera izanen dugu.

Aton-Mosaique egitasmoaren barruan antolatu dute emakumeari eta lanari buruzko ikerketa eta erakusketa. Sakanako Garapenerako Bulegoak eta Orientabide Profesionalerako Zerbitzuak bideratuta ikerketa honek datu esanguratsuak jasotzen ditu, eta datu horiek guztiak denon begibistan jarriko dituzte.

Sakanako biztanleria sexu, adin, soldata eta langabeziaren arabera banatu dute ikerketa egiteko. Biztanleria soilik hartuta, Nafarroan gizon baino emakume gehiago dagoela ondoriozta daiteke. Sakanan, aldiz, gizonezko gehiago. 25-40 urte bitarteko adin tartean emakume eskasia nabarmenagoa da. Lanerako adina duen biztanleria kontuan harturik, emakume eta gizonezkoen arte-



Hirigunean ez du eragin handirik izango Hirigintza Plan berriak. Aldaketa nabarmenak eragingo ditu, baina, inguruko auzoetan

JACOBA MANTEROLA

an desoreka handia dago. Horren arrazoia da oraindik ere emakumeen jarduera nagusia etxeko lanak direla. Beraz, etxean lan egiten duten emakumeak ez dira lan adineko biztanle kontsideratzen.

Soldata jasotzen duten biztanleen artean, esan behar da, soldata jasotzen duten emakumeen kopurua handitzen ari dela. Hala eta guztiz ere, lanerako adinean dauden emakumeen %30ek soilik daukate lana. Europako tasarik baxuena da. Kontuan hartzekoa da, Sakanan dagoen enpresa mota dela eta, gizonezkoak kontratatzen dituztela nagusiki, nahiz eta emakumezkoek lan bera berdin-berdin egin dezaketen. Sakanan 80-90 enpresatik 5ek bakarrik hartzen dituzte emaku-

meak. Azkenik, langabezian dagoen biztanleria kotuan harturik, ondoriozta daiteke emakumezkoen artean dela langabezia tasarik altuena, eta 35-44 urte bitarteko emakumeek langabezian egoteko duten probabilitatea adin bereko gizonezkoena baino lau aldiz handiagoa dela.

Erakusketa herriz herri

Herriz herri ibiliko den erakusketa mugikor honek Sakanako emakumeari eta lanari buruzko datuak biltzen ditu. Erakusketa hiru zatitan banaturik dago. Lehenik eta behin, emakumearen egoeraren berri ematen duen azterketa bat azaltzen da. Bigarren panelak, berriz, autoenplegua du hizpide. Bertan hainbat

emakumek jarri dituzten enpresen berri ematen du. Horrez gain, autoenpleguari buruzko informazioa ematen digu. Susana Mendinueta Cederna-Garalurreko eskualdeko arduradunaren iritziz, «dagoen eskarirako, emakume administrari asko dago. Beraz, emakume hauei beste zerbait egin daitekeela erakutsi behar zaie, ez dezatela euren etorkizuna mugatu».

Erakusketa urriaren 7an zabalduko da Altsasun eta 12ra bitartean izanen da hango Gure Etxea aretoan. Handik Irurtzuna pasako da, urriaren 14tik 17ra. Etxarri-Aranatzen hilaren 21etik 25era egonen da eta erakusketa Olaztin bukatuko da hilabete bukaeran.

→ Aitziber Etxaiz

Olazti

Jardunaldi Gastronomikoak egingen dituzte bihartik aurrera

SAKANAKO II. JARDUNALDI Gastronomikoak hasiko dira bihar Olaztin. Hilaren 12ra bitartean, beraz, herri bakoitzeko janari goxoena izanen dira protagonista. Hasteko, bihar arratsaldeko 19:30etan, San Migel elkartean, Katealde ahatekiak dastatzeko aukera izanen da. Ondoren, Aixelegu jatetxean afaria egingen dute.

Biharamunean, Altsasun, Alzania elkartean, Urbitarte sagardoaren eta Brasileña kafearen dastaketa komentatua izanen da eguerdian, eta gau partean afaria Iortia jatetxean. Hilaren 10ean, halaber, Altsasuko Gozotegi Eskolan han egindako pastelak dastatzeko aukera izanen da.

Biharamunean, Etxarri-Aranatzera ailegatuko dira Jardunaldi Gastronomikoak. Arratsaldeko 19:30etan, herriko kanporean Sakanako txekorria izanen da eguneko protagonista. Gauean, berriz, afaria egingen dute kanporean bertan. Hilaren 12koa izanen da jardunaldietako azken eguna, eta Ziordian ospatuko dute. Iturrimurri hotolean bazkaria egingen dute. Jardunaldietan parte hartu nahi duenak 60 46 19 telefonora deitu behar du, edo parte hartzen duten jatetxetara.

Patxi Saenz turismo teknikariak dioenez, jardunaldien bitartez «Sakanako jatetxe eta establezimenduaren promozio berezia» egin nahi dute.

Afari, bazkari eta dastaketan inguruko produktuak prestatuko dira.

→ Aitziber Etxaiz

bidean begi

MAITE URKIA



Oso urrun ez dagoen neguari begira egunak laburtzen ari diren honetan, ezin esan dezakegu uda amaitzearekin batera loaldi luze batean murgilduko garenik hartzek boso sarran egiten omen duten bezala, aski baita garai honetako egunkariak irekitzea aisialdia betetzeko prestatuak diren ikastaro metez ohartzeko, hori jakina, kanpoko zein etxeko beharrek horretarako bide uzten dutenean. Iragan eguzki beroak indarriturik edo, asmo berriak ernatu ohi zaizkigu udazkena hurbiltzean, berriak edo zaharberriak, nahiz eta indarra eskas ere izanen duen batek baino gehiagok, arrazoiak arrazoi.

Arratsaldeak ilunagotzen, eta atseginago bihurtzen hasi dira etxeko epelak eta horien ondoren txokolate katilukada beroak, gaztaina erreak,

manta arinen bat hartuta gau aldera filme atsegin bat ikustea, asteburu goizetako maindire epelak kanpoan euria ari duela, gustuko libururen bateko istorioa, oporraldian ihes egiten baitute liburuek eskuetatik sarritan, eta gozoa den guztia, gurariet eskatzen dutenaren ariora.

Holako xedeetan lagun heldu da, bada, zoko honetako leiho berri hau, oharturik hasiera guztiak direla bizitasunaren seinale eta gogoan izanik ezer hasteko azken aukera izan zuela tamalez, eta beste askoren artean, duela gutxi Aiako Harriaren amildu zen mutil gazteak.

Egia da, hala ere, handik edo hemendik ilaunak argiari egiten diola toki ilauntasuna sakonegia ez denean bederen, berezkoa baitu bizitzak txinparta sortzeko ahalegina. Eta ezin esan txinpartak falta

izan zirenik aurreko larunbatean Lapurdin izandako ezkontza batean, hegoaldekoak garenontzat, batzuentzat behinik behin, ezberdin xamarrean; bi orduko aperitifak trinketeen dantzarako musikak laundurik elizkizun luzearen ostean eta goizeko bostetan harturiko baratzei saldaekin amaituz afarialdi bizi-bizia; afariko jakien artean dantza eta kantarako aukera kantu bilduma eta guzti, frantsesez bat edo beste, baina gehienak euskaraz. Giroa egiaz beroa, nahiz eta hizkuntzaren inguruan antenak jasota ibiltzeko joera dugunontzat izan zen itzalen bat, zerez, gonbidatuak izanik baztandarrak eta Kanbo inguruak eta hain hurbil egonik bi lurralde horiek, zein urrun dauden hizkuntza mintzatuaren aldetik, eta zein tarte txikia, bestalde, galdutakoa berreskuratzeko!

Doneztebe

Baztan-Bidasoako Euskaltzaileen Topaketak hasiko dira asteartean

BAZTAN, MALERREKA ETA BORTZIRIETAKO euskara zerbitzuek Baztan-Bidasoako Euskaltzaileen Topaketak antolatu dituzte.

Topaketak datorren asteartean hasi eta azaroaren 4a bitartean izango dira. Tarte horretan bederatzi saio egingen dituzte, astearte eta ortzegunero, arratsaldeko 19:30etatik gaueko 21:30ak arte. Saio guztiak Doneztebeko Juantsenea etxean izanen dira. Xabier Erizek emanen die hasiera topaketei, *Euskararen historia Nafarroan* izenburuko hitzaldiarekin.

Xamar idazlea izanen da bigarren partehartzailea, hilaren 9an, eta Txepetxen teorien inguruan mintzatuko da. 14an, berriz, Patri Arburua izanen da hizlari, eta Bortzirietako gazteek euskararekiko duten jarrera aztertuko du. 16an, eskualdeko komunikabideak izanen dira protagonista, zehazki, Xorroxin Irratia eta *Ttapi-ttapa* aldizkaria. Hitzaldi eta mahainguru ugari izanen da azaroaren 4a bitartean.

Larraun

'Mailope'-k 50. alea kaleratu du

BERE HISTORIAREN ERREPASO BATEKIN BATERA zenbait berrikuntza dakartza *Mailope* herri aldizkariak. Duela zazpi urteko San Migel egunez kaleratu zen, lehenengoz Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberriko herri aldizkaria. Orduan Araitz-Beteluko bakarrik zen, eta lau orrialde baino ez zituen. Urteen joanarekin, ordea, *Mailope* handitu egin da.

Araitz-Beteluko Euskera Batzordeak sortu zuen aldizkari hau, bertako albisteak jasotzeaz gain, bizilagunen artean euskeraz irakurtzeko zaletasuna sortu

Bera



Erreka garbitzen

Joan den irailaren 10az geroztik eta azarora bitartean, Zia erreka bazar garbitzen ari dira hamar langile, Espainiako Enplegu Institutu Nazionalak (INEM) Nafarroako Gobernu Ingurugiro Sailarekin sinatutako lankidetzaren esker. Langileak Iparraldeko Hidrografi Konfederazioa izeneko enpresak kontratatu ditu, eta azarora bitartean herritik igarotzen den erreka zatia garbitzeko konprometua hartu du. Halaber, lana epea amaitu baino lehen bukatuz gero, Bidasoa ibaia garbitzen hasiko dira egunotan Zia errekan lanean ari diren hamar langileak.

eta indartzeko asmoz. Zazpigarren urtebetetzea ospatzeko, ekitaldi ugari antolatu ditu hilabete honetarako: 11n bertso afaria izango da Beteluko Zigari elkartearen, Oskar Estanga, Mikel Altzuart eta Estitxu Arozenarekin; urriaren 13tik 19ra erakusketa bat Mitxausenean, portada eta argazki bitxiarekin, eta urriaren 25ean, Lekunberriko pilotalekuan, gauda bikain bat: Berri Txarrak diskoaren aurkezpena eta Alaitz eta Maiderren doinu alaiak.

Baraibar

Jaiak dira asteburu honetan

ASTEBURU HONETAN OSPATUKO DIRA BARAIBARRREN Sanmigelak. Txupinazoa gaur botako dute, 20:30etan, eta ondoren txikitea eta

herri afaria izanen dira. Gero, Elurte taldea ariko da.

Baraibarren bada pilotazaletasun nabarmena (Ladis Galarza bertakoa da). Eta zaletasun hori asetzeko, jubilenen eta lehen mailako afizionatuen pilota partiduak izango dira bihar, 17:30etan. Lehengoan, Azpiroz-Bernal eta Sueskun-Tirapu ariko dira, nor baino nor, eta bigarrenetan Berasaluze VI.a-Bazeta Galarza V.a-Okinenaren aurka. Dena den, seguruenik, larunbata gaueko dantzaldiak izango du arrakastarik handiena. Trabuko ez da ez nolanhako taldea horretarako.

Azken eguna igandea izango da. Meza ondoren, Altxako dantzariak erakustaldi bat eskainiko dute. Arratsaldean, berriz, aizkolariak izango dira protagonista: Arrospide eta Mugerza alde batetik eta Larretxea eta Barberena bestetik. Aizkora apustua arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Ondoren mus txapelketaren finalerakin amaituko dituzte aurtengo jaiak Baraibarren. —> Urko Aristi



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Anbulantziak eta enplegua

Irailaren 25etik kalean da *Ttapi-ttapa*-ren azken zenbakia (214.a), eta larrialdietarako ambulanziei buruzko artikuluar eskaini dio tarterik zabalena. Hamabostekariaren azalean nabarmentzen denez, larrialdietarako ambulanziarik ez dago Bortzirietan. «Bortzirietan istripu edo larrialdiren bat gertatuz gero, Irundik edo Doneztebetik datorren ambulanziar esperatu behar zaio. Egoera hau aski larria da, 8.500 biztanleei Lesaka eta Berako fabriketan ari den jendea gehitu eta errepedean izaten den trafiko handia kon-

tuan hartzen badugu. Eskualdeko alkateak bildu dira dagoeneko Santiago Cervera Nafarroako Gobernu Osasun kontseilariarekin, Bortzirietarako ambulanziaz eskatzeko. Momentuz, ez dute erantzunik jaso».

Orain arte DYAK Lesakan zuen ambulanziaz Iruñera eraman dute, boluntario nahikorik ez zegoelako. Hamabost urtez DYAKo Lesakako arduraduna izan da Jose Maria Irazoki, eta, haren ustez, «larrialdietarako zerbitzuaren egoera penagarria da eta, gainera, maldan beheiti doa».

Guaixe Sakanako hilabetekariak ere kalean du azken zenbakia, 34.a, alegia. *Sakana ezagutz* atalean, lanaren gaiari eskaini dio tarte. «Pertsonal kualifikaturik eza da gaur egun Sakanako Enpresarien Elkartea gehien arduratzen duen gaia. 1997. urterako 350 lanpostu berri aurreikusita zeuden. Dagoeneko, lanpostu horiek bete dira. Horrek gizonezkoen langabezi tasa jaisteaz sor-tarazi du. Lizentziatuak emakumezkoekin batera, lanpostua lortzeko zailtasun gehien dutenak dira, ordea»

Donesaturdiko



oilarra lumatzen

Juan Kruz Lakasta

Fermin

Fermin Iruñeko Kale Berrian jaio zen, 1933ko azaroko goiz hotz batean. Egun alarguna da, Donibane auzoan bizi da, seme nagusiarekin, eta, jubilatua berri bada ere, ez da sekula Elurretako Ama Birjina kaleko jubilatuentzako lokalera joaten. Semeak eta errainak han ongi pasatuko lukeela uste dute, eta behin eta berriz horretara joatera animatu nahi izaten dute. Uste dute arazoa dela Ferminek ez duela onartzen zaharra dela.

Haatik, Ferminek aski ongi daki zaharra dela. Aski ongi onartuta dauka hori, besteak beste, artritisak zigortutako bere hezur zaharrek mugitzen den aldiro min isil ezatsegin batez gogorarazten diotelako. Argalargala izanik, argi dauka mugitzaerakoan urteen pisuaren zama nabaritzen duela, eta ez kiloena. Gainera, ez du uste gattetasuna bihotzean dagoenik, besteak beste, horrela balitz bera den baino zaharragoa izanen litzateke, dagoeneko bi infarto pairatu ditu eta. Ferminek onartzen du zaharra dela. Haatik, ez du onartzen tontoa dela, eta, haren idurikoz, jubilatuentzako lokaletako langile azkarrak zaharrak tontotzat hartzen dituzte. Hori da arazoaren gaikoa.

Ferminek nahiago du edozein karrikatako obrara joan, obretan gauzak bestelakoak izaten direlako. Hor jubilatua dira azkarrak, eta langileak tontoak. Eskarmentu handiak, obretan urte andana igaro izanak ematen duen zilegitasunaz, jubilatuek langileen lana kritikatu egiten dute, langilekoitaduak haserretzen diren arte. Ferminek izugarri gustuko du langilea eta bera lotzen duen sokatik gero eta gehiago tira egitea, kritika gero eta zirikatzailagoak eginez, soka hausten den arte, langileak eztanda egiten duen arte, koitaduak errieta egiten dion arte. Orduan zoriontsu sentitzen da, eta beste obra batera aldegiten du. Semeak eta errainak ez dute ulertzen zaletasun hori. Haien idurikoz, ez da normala obra batean sekula lan egin ez duen 66 urteko maisu jubilatua berria obraz obra langileak kritikatzeko ibiltzea. Gazteak gazteak dira, eta zaharrak zaharrak, eta gazteak batzuetan ez dute hori ulertzen. ●

Sexua Aisialdia pasatzeko beste modu bat

Hasierako trabak kenduta, gero eta erabiltzaile gehiago dituzte Iruñeko denda erotikoen

Oraindik ere sexuak gizarteko sektore batzuetan erreparorik sortzen badu ere, gero eta jende gehiago hurbiltzen da Iruñean zabalik dauden bi denda erotikotara. Haietako arduradunen iritziz, sexuaz gozatzea aisialdia pasatzeko beste modu bat da. Dena den, adituek zein dendariak heziketa sexualaren beharra sumatzen dute.

UDAZKENEKO HEGO-HAIZE EPELAK JOTA EDO, Firuk beste bazkide batzuekin Sex Haizegoa denda erotikoa edo sex-shop-a ireki zuen Iruñean, 1994ko abuztuko beroaren arrimuan. Ideia 1989an Bartzelonara egindako bidai batean ikusitakotik ateratu zuten. «Sexuaren inguruko aisialdian gero eta gauza gehiago zeudela ikusirik, Iruñeak horretarako aukera bazuela ikusi genuen, eta denda zabaltzea erabaki genuen». Pentsatu eta egin egin zuten baina urratu beharreko bidea ez zen erraza izan, hasiera batean mila arazo eta traba izan baitzituzten. Batetik, Iruñeko Udalaren presioa izan zuten, eta bestetik, denda ondoko auzokideena. «Udalak ez zuen sailkatua horrelako aktibitate bat eta ez zekien zertan oinarritu behar zuen guri irekiera baimena emateko. Azkenean osasunarentzat txarrak, kaltegarriak eta deserosoak zirenen artean kokatu gintuen», gogoratu du Firuk. Era berean, ohitura onen eta moralaren aurkako 1982ko Espainiako Erret Dekretu batean babesturik, Udalak sarrerako erroretuak kentzera behartu zituen, barruan zer saltzen zen iragartzen zutenak. Dena den, arazo legala izan zen gutxienekoa, dendari behin baino gehiagotan eraso baitzizioten. Establezimenduko kristal opakoak behin baino gehiagotan harriatu eta apurtu zituzten, eta hasierako bospasei hilabeteetan aurrealdea pintadaz josi zitien. Hori gutxi balitz, izan zen denda itxeko ahaleginean sinadurak biltzen ibili zen auzokiderik ere, eta beste norbaitek petardoak atean jarri eta kristala lehertarazi zuen. Arazoak arazo, Sex Haizegoak aurrera jarraitu du eta Firuk eta bere bazkideak beste bat ireki zuten joan den maiatzean.



nahi ere, gehien erabiltzen direnak bideoak, aldizkariak eta kabinak omen dira. «Maizkoa den jendeak, batez ere, bideoak eta aldizkariak ematen ditu etxera, eta kanal askotako kabinak ere erabiltzen ditu. Erabiltzaileak kabinan sartu eta txanpon batzuen truke 32 kanaletan zapping eginez hainbat irudi porno tarteka ditzake. Hori hemen, eta maiatzean ireki genuen beste dendan 64 kanaletan barna ibili daiteke», azpimarratu du dendako arduradunak. Ohikoa ez den erabiltzaileak, berriz, nahiago ditu txantxetarako artikulua. «Zakilak, puzten diren panpinak, bibragailuak eta, batez ere, fereketan erabiltzeko lubrifikatzaileak».

Zenbat artikulua, hainbat erabiltzaile ditu denda erotikoa. Sex Haizegoara denetarik hurbiltzen da, hasi hemezortzi bete berriak dituen gaztetik eta bastoiaren laguntzaz doan aitona-raino. Ohiko bezeroa gizonetako da eta bideoa eta aldizkariak ditu gustuko. Txantxetako gaiek ez dute ez adinik ez sexuik, eta guztiak eramaten dituzte noizbait; dela ezkondu aurreko agur afarirako, dela bikotearekin edo taldeka zapo ehizan ibiltzeko eta josta-

Dendan dauden hainbat kanaleko kabinak ere oso erabiltzak dira.

LUIS AZANZA

Denetarik aurki daiteke

Sex-shop batera hurbiltzen denak sexuaz gozatze nahi adina osagarri bitxi zein ohiko topa ditzake: aldizkari eta bideo pornoak, txantxetarako artikulua morda eta, nahiz izanez gero, apaingarri erotikoa dituzten tartak ere enkargatu. Nola-



Bibragai-luak asko saltzen dira denda erotikotara. Garestiena 22.000 pezeta kostatu daiteke. LUIS AZANZA

tzeko. «Duela gutxi berrogeita hamar urteko alar-gun bat etorri zen izan dituen bi senarrak bihotz-koak emanda hil zitzaizkiola eta bibragailu eder bat erosi zuen disgustu gehiago ez zuelako nahi. Koadrilak, berriz, taldeka etortzen dira; bat nora, guztiak hara joaten dira zer egin ez dakitela».

Firuren ustez «zoritxarrez sexua ez dago normalizatu. Ez da gozatzeko beste zeregin bat bezala hartzen eta gizarteko zati handi batek begi txarrez ikusten du». Hala ere, heziketa falta nabarmena sumatzen badu ere, gauzak gutxinaka bada ere aldatzen ari direla dio. «Gizarteko sektore zabal batek sexuaren kontsumoa eskatzen du eta gorputz askok aisialdi hori nahi dute. Aisialdia gozatze beste modu bat besterik ez dugu eskaintzen hemen».

Ildo horretan, sex-shop-ak sexu gustuetan aurrera egingo beste pizgarri bat dira. «Bikoteen arteko sexu sinplean gelditu beharrean, gehigarri asko jar daitezke harremanean: bideoak, bibragailuak... Gauza da praktikatzeko dutenak ados egotea eta euren nahiak asetzeko».

Literatur eta pintura lehiaketak

Baina sex-shop-ak, praktikatzeko gonbita ez ezik, sexuaren erotikaren inguruan idazteko eta margotzeko aukera ere eskaintzen du. Aurtien, lehenengoz, pintura erotikoko lehiaketa antolatu du Sex Haizegoak eta aurki bi urtez jarraian egin duen literatur lehiaketara ere deituko du. Jabo goitizena erabiltzen duen marrazki irakasle batek irabazi zuen joan den urtean *Venus en Sodoma* (Venus Sodomian) liburuarekin eta oraingorako ere beste bat prestatzen ari da. «Literatura erotikoa sexuaz gozatze beste era bat da eta, era berean, ikasteko modua», gehitu du irribarretsu.

Irene Arrizurieta



Jose Luis Garcia

«Nafarroako sektore asko heziketa sexualaren alde daude eta hori sexualitate ezkutuko bihurtzen da. Aldiz, sexu ariketa onak osasungarriak».

«Sexua ongizate eta osasun iturri da»

JOSE LUIS GARCIA sexologoak Iruñeko Iturruma auzoko COFESan (Famalia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentroa) egiten du lan, eta heziketa sexualaren inguruan liburu franko idatzi ditu. Garciaen iritziz, oraindik ere sexua normalizatu gabe dago gizartean eta erakundeetatik deus gutxi egiten da beharrezkoa den heziketa bat emateko.

Nafarroako Parlamentuak 1981ean onartutako araudiak hezkuntza sexualaren beharra ofizializatu bazuen ere, Gobernuak Iruñeko Andraize eta Iturramak eta Tuterako COFESen esku utzi du erabat lan hori. «Gure eginbeharra profesionalak hezitzea izan da, gero haiek euren zentroetan irakasteko. Auzulirik ez dagoenez, eta implizituki Gobernuak heziketa sexuala ez duenez sustengatzen, irakasle bakoitzak nahi duena egiten du». Orain LOGSEk (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Oroko-

rrerako Legea) heziketa sexualari atea irekitzen dion arren, ez da batera zehatza, zeharkako ikasgaietan sailkatzen baitu. «Zentro bakoitzari uzten dio heziketa sexualaren ardura. Normalizatu gabe jarraitzen du eta jendeak ikasten du sexua kalean eta lagunekin». Gobernuak ez ezik, ikastetxe askok ez dute heziketa sexualari buruzko politikaz txintik aditu nahi. «Sektore asko erabat aurka daude, eta horrek sexualitatea ezkutuko bihurtzen du, isilka eta ohopeka egiteko zerbait bailitzen, eta sexua oso ariketa ona eta osasungarria da. Jendeak ongi informatua egon behar du, eta gero erabaki dezala zer egin».

Sexua naturaltasunez eta osasunez gozatze gako ongi informatzean bada ere, sexologoen merkatuak eskaintzen duena ere gomendatzen dute. «Sex-shop-ak beharrezkoak dira badagoe-lako gustuko dituen jendea, eta errespetatu egin behar dira. Guk geuk gomendatzen ditugu, bikote batzuentzat

beharrezkoak direla uste dugulako. Haien bizitza sexualan aldaketak eta orjinaltasuna sar dezaketek. Bikote guztiak momentu batean aldatetarik behar dituzte euren harreman sexuala; gainerakoan egunerokotasunak irensten ditu, eta gaitza da. Pelikula pornoren bat ikusi, bibragailuren bat sartu harremanean. Finean, jolastu».

Era berean, gizarteak mezu bikoitza igortzen duela az-

pimarratu du Garcia. «Bate-tik, sexua gonbidatuz komunikabideek saltzen ditugun eredu sexuala zoragarria da; baina bestetik, erreprimitzeko esaten zaigu. Horrek kontraesan izugarria sortzen du». Hori dela eta, gizakiak zoriotsuago izaten ikasi behar duela dio sexologoak. «Bizitza laburra da, eta sexua da, ditugun zorion une gutxiaren artean, ongizate eta osasun iturri».



Pentsa zertan gabiltzen gu. Gutxi gelditzen zaigu, sistema, errealitatea, poterea aspaldi egin baitzen gure espazio sakratu horren jabe. Orduan, zergatik sortzen du hainbeste istilu sexualitateak, zergatik harriatu zituzten sex-shop-eko kristalak, zergatik arduratzen gaitu hainbeste sexualitateak galdetuko du norbaitek.

Beharbada sexua heriotza esperimendatzeko eremu sakratua izan zeneko sexumina baino ez da, estalki didiratsua erakartzen gaitu, bai, baina urratu estalkia... barna hutsa du, hutsala, heriotza estaltzeko oraineko trapuz betea. Gizarte honetako maki-na bat gauzak bezala.

iritzia Juanjo Olasagarre • IDAZLEA

Joan beharko genuke sex-shop-etara

Georges Bataille filosofo frantsesak sexualitate, erotismoa, eremu sakratutzat jo zituen. Lanaren munduaren aurrean, mundu arrazionala, ordenatzailea, murrizgarria, natura domeinatzen saiatzen den mundua, sexuaren mundua paratu zuen, biolentziarena, eremu sakratu askea. Eremu sakratu horretan biolentzia zilegi da, gure animaltasunaren adierazpen askea baino ez baita, eta, halaber, gure denbora eten egiten den orgasmoan. Orgasmoan bizitzaren lapsus batez heriotza esperimendatzeko dugu, une batez gure izana airean geldituko da, eta hiltzera kondenatutako haragia baino ez garela esperimendatzeko dugu; heriotzaren simulakroa da orgasmoa, alegia. Transgresioa eremu sakratu horretan bameratzeko ahalgina baino ez da. Baina da esan beharrean zen esan beharko genuke ze gauzak aldatu ere aspaldi aldatu baitziren.

Kristautasunak, bi hitzetan esateko, sakratua dibinorekin identifikatu zuen, orgasmoaren heriotzaren esperientzia Jainkoaren amodioaren, bizi za etemalaren esperientzia bilakatu zuen, heiotzaren kontrako, hain zuen, horrela eremu sakratu hori eremuaren eremu bihurtuz. Gero, bost urteko haurrek ere badakite, Jainkoa hil zitzaigunean umezurtz gelditu ginen ez jainko, ez sakratu, ez maria.

Hortik aurrerakoak denok bizi ditugunak. Beraz, artikulu honen izenburuari erantzunez: arrazoitze izugarri burutsuen bidez gure lotsa gainditu ondoren, joan beharko genuke sex-shop-etara galdetzea eta ahuntzaren ezulari buruz galdetzea berdintsu.

Sex-shop batera, demagun, bideo porno bat alokatzera joan edo Eroskira makarroiak erostera joatea funtsean berdina da —ez harritu noizbait Eroskik eta supermerkatuaren txoko ixkutu batean, hori bai, sex-shop-eko produktuen eskaintza egiten badu—, sexua eta sakratua lotzen zituena aspaldi desagertu zelako. Sexua egun kontsumu gaia baino ez da, osasuntsu eta sano, eta paraje hauetan jator esan beharko genuke, mantentzeko betebeharreko beste zeregin bat, hala nola kirola, erretzeari uztea, posibilo izatea edo sexu segurua egitea. Transgresioak ez dago beraz, eta gelditzen direnak (sex-shop batera joateak ez dauka zer ikustekorik transgresioarekin baizik eta gure lotsa gainditzearekin) zentzua ere aspaldi galdua dute. Sade Markesa eta Masoch kondoa izan ziren transgresiozatan aritutako azkenekoa, sexuaren eremu sakratuan biolentziaren aldarrikapena egiten, baina aldarrikapena izateagatik, beharbada, eremu sakratu horren karrikatura baino ez zen.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Glu, glu, ardozaleak gara gu! (I)

Asko eta asko badira edatearen kontra prediketari apezak, ia guztiak generrake beldurrik gabe



H iztegiak aski argirik salatzzen digun bezalaxe, euskaldunok bi izan ditugu urte aroak, eta biak, San Miel egunek partiturik. Maiatzaren 8ko San Miel txikiarekin uda parte badatorkigu festa giroan, eta irailaren 29ko San Miel nagusiarekin, aldiz, negu aldiak garaitzen gaitu goibel. Historia zaigu engoitik herriz herri eguniko ibilaldi txurigorri gautiarra osatu duen xurrutaldi, maitasiao, astakeri, saltajauzi, kanta erlats, oiñu beltz, beila sakon, soinu gorratzaile. Historia zaigu, oro har, aurtengo udako festaroa. Eta urdaia garagardok hanturik, hamaika neurona haboro gaupasen lurrin etiliko amiotu batek gohaindurik, harzara ogen ez egiteko erabakia — beharbada sendoegia ez dena — aizaratzeko unea iritsia dugu. Badakigu, halaz guziz, geurzko uda hasmentan, ahantz bide erpinduan behera joanen zaizkigula oraingo asmo garbitzaileak oro, urtero legez. Aztura xurrutzaile ikuzteko dukegun saioa geroago irautenago ari dela esan ahal izateko, hona hemen, euskal izkiria-gintza izkutuaren adibide zenbait, guztiz lagungarriak daitezkelakoan. Horrela ez balitz, eta jarraiko testuak irakurrita ere, botilaren tutuari muturra eransteko tentazioari ezin eutsi dabilenak, hurbilen duen tabernari buruz jo beza, bertan elkartuko gara eta!

Asko eta asko badira edatearen kontra prediketari apezak, ia guztiak generrake beldurrik gabe, nahiz eta mezan berean ere ardoaren ageriko apologia egin eliztar guziren aurrean, kaliza ezpainetaratu ostean aurpegia- ren atsegin-

duak salatu gisa. Ekarriko dugun adibide bakarra Otxandioko apeza izan zen Andres Iturzatea Egiaeren eskutik. Honek Tolosako Lopezen baitan 1894. ean argitaratu eman *Urtearen domeca guztiñetaraco berbaldi*-etan «Ordiqueriarren gañeco berbaldia» eskeini zigun bizkaiera goxo batean: «Baneucac berba duñeficoac, ordiqueriazco ecandu lotsagarrizcoaren irudi bici bat zuei emateco, ez daucat badaezbadaric, guztio gorrotauco ceunqueela ecin-gueiagooan ecandu ain madaricatua. Icusico ez baguendu sarri ta sarri jazoten dana, ecin sinistu izango geunque, guizonaac elduten dirala abere ta patariaac baño charragoaac izatera. Abere ta patariac balletan dira euren oiñ, escu, beso, begui eta euren gorputzeco beste emparau zatiacaz, baño ordi batec ez daqui eta ecin baliau leiteque bere eguiqueracaz. Beguiratu eguiozue, ardauc eraguinda dagoan ordi bateri, eta aguertuco jatzue ceuen beguien aurrean icusgarriric itsiena eta ezaiñena».

«Gizonari etorri leikiozan gauzarik negargarrienak eta mingarrienak ugorki edo alkolaren bidez yatorkozala diñoec gaur gizon aittu gusti gustiak,

eta uste au gizon gustien artean zabal zabal dabil». Gizon aditu guztiakin batera bide zihuan beraz Bizkaiko Aldundi Goitia Bilbon zuen irarkolan *Edariaren kalteko gudea* izenburuko 1923. ean argitaratu eman zuenean. Bi hizkuntzetan zekarkigun lan honetan —alekiari buelta emanda *Campaña contra el alcoholismo* lakarra baitagerkigu — gogor-gogorrek zizkiguten bizkai gobernukoek edari alkoholunez aitzia, ahoan bilorik gabe, nor zipritindu ere: «Alkolaren zalekeria edo alkola edateko oitura txar iguingarria, Bizkayan geroago ta bide andiagooak artzen ari da. Onezkeri bada, laterri-agintariak bear diran esi edo trabak ipiñi bear eutsozan, baña eztoqu uste gobernuko orretaraino esirik ipiñiko dautsonik gatzari, España laterria ba, ardao artzallea da, ta etxatoriko ondo laterriari ardaoaren kontrako legerik-*ipintea*». Aferaren deskribapen zehatz mehatz ezezik, baita horren konpontzeko beharreko zigor arauak jasotzen ditu paper honek: «Erriko udalak aginduta daukozan orduen barruan bakarrik egon leikez trabenak eta ostantzeko edari dendak zabaldua, ta ordu orretatik kanpora edo ordu orrek baño beluago zabaldua aurkittuko dan edari dendearen yaubea, erruduna izango data, zigorra ezarriko yako beraribe. Iñoiz iñungo udalen bat berak lendik aginduta daukozan trabenak zabaldua eukitteko ordu orrek luzetzeko asmoz Aldundi orretara ori egiteko eske etorriko balitz, Aldundiak beti atzertuko dau eskari ori ta eztau aintzakotzat artuko ezetza bidaldurik beti».



etorri ahalean

Patziku Perurena



Atzeneko liburua

inguruak garbiantza edukitzea gustatu izan zait beti. Izakera kontua, behar bada, baina inozentzi edo segurantz gisako zerbait eman izandu dit joera xahar honek. Salatuko naiz ba, berrizkoan ere, nere inozentzi pixarra erakusten.

Kontua da, Bilbo Bizkaia Kutzak eta Euskaltzaindiak sari-keta batzuk antolatzen dituzte- la urtero, eta nik nere idazlana bidali nuela sariketa hartako sail batera: 1994eko Mikel Zarate sarira, hain zuzen, eta saria Jon Alonsok bereganatu zuela *Idiaren eraman handia* izeneko lanarekin. Jonek ezik, nik ere suertea haundia izan nuen: *Leitzako bertsokontuak* bidali, eta nahiz saririk ez jaso, epaimahikoek on eritzia emanik, pentsatu eta pozik esan nion neure buruari «etzeok hau galtzera uzterik, Patziku».

Hala, pozez txoratzen hasi nintzen behar lan luzeskoa argitaratzeko moldatzen eta txukuntzen. Lehengoak lehengo, beste urte eta erdi joan zitzaidan faximil ateratzen, argazki bitzen, testu moldatzen eta... halaxe bukatu nituen liburu honekikoak. Zenbat aleko tirada egin zuten, prezioa nork eta nola para zion, nola zabalduko zen, horretan inolako eskubiderik izanen ote nuen... ezta tutik ere nik, gaur oraindik. Hori aski ez, ondore hartan, neronek eskatu behar izan nituen alde aurretik agindutako aleak, eta azkenean 48 ale jaso nituen, eta baita partitu ere abudo, us-tez zorrik haundiskona nienen artean; hala ere, beste asko eta asko, beren ilusio eta borondate on guzia erakutsitakoak, neronek agindutako alerik gabe gelditu zitzaizkidan, penaren penaz.

Arrazoi osoz usteko dute orain, neronek sosen batzuk ateratzeko azpijokoa egin niela, baina bihotzez eta amorrazioz esaten diet, nik ez dudala sos baten irabazirik atera liburu honekin, eta kontzientzia lasa daukadala, haiekiko zorra eta

ez beste inorekikoa kitatu ez izandako pena haundiz bada ere. Holaxekoa da mundua: lana bere ilusio eta borondate osoarekin egiten duenak ez beste guziak kobratzen ditu gaur bere diru zikina, eta bitarteko merkatari dirugose horik batik bat.

Konparazio batera, liburu hau burutzekoan, milaka kilometro egin nituen hango eta hemengo artxibo, udal, eliza, etxe, baserri, gertaleku eta bestetara; milaka kopia (testu, dokumentu, faximil edo argazki zaharrenak) atara nituen; milaka ordu egin liburuak tajutzen eta maketatzen... dena nere gustoz eta borondatez, dena nere polsetetik. Laguntzaileek, batez ere, ahozko altxor aberatsaren testigantza eman didatenak, orduak eta orduak eman dituzte nerekin solasean, eta gainera argazki eta dokumentu asko utzi didate kopiak ateratzeko, dena beren borondate eta ilusio hutsez, eta azkenean, horietako askok 3.000 peza pagatuta erosi behar izanddu liburuak.

Bien bitartean, liburu honen kontua zipitzik inporta ez zaien bitartekariak: argitaletxeek, hedatzaileek, liburudendek, eta antzekoek ale bakoitzeko beren diru puska aterako dizute.


Gero, nola ez, holako lanak estimatzeko dauden erakunde ofizilak dauzkagu: kultur sailak, udal beletak, literatur hegatsak, estio batzordeak, euskararen baldeko mila elkortu, koordinakume, artalde, unibertso, UEMA, buhame eta... Eta bai, nere eskerrik gaitzenak zor dizkiet denei, batez ere Leitzakoei. Izanez ere, honetan deus ikusirik ez duten kanpoko bi jaun itzaldunen babesera Patxi Larriñonek egindako negarreskeari esker, Vianako Printze errukitsu horrek eman baitzidan berrogei mila duroko limosna. Lotsa ere balitzateke Leitzako kultur gidariontzako, baina nago, gaixo xipoxtuok, kultoegi bihurtu direla, horren sustantzi klase arrunta bertatik bertara sumatzeko.

Ziria

Motsorrozolo

Gabon-Uganda

Z IORDIN EZ DA GIRO. XX. MENDEAREN AKABERAN KOMUNIKABIDEK inkomunikazioa eragiten dute. Hona ziordiarrei gomendioa, kasu Zuastiko *Jauregi* jaunari tradizioz datorkio. Bestela, Ardanza jaunari galde egin behar. Bi urte igaro dira Akitania-Euskadi-Nafarroaren karitrik Donesaturdiko Oilarraren magalean afaria egin zutenetik. Jose Antonio gau-txorria ez izaki, goiz xamar abiatu zen, nunbait, urruti dagoen Gasteiz aldera. Mahaitik altxatu eta gabon diosalka, afalkideak agurtu zituen. Horren aurrean, Zuastiko *jauregi* denok aditzeko moduan uganda-ka hasi zitzaion.

Carlos Irujo  Adecana-ko idazkaria eta ehiztaria

«Kontrapasan ehizatzen dena huskeria da»

Madrilgo Gobernuak kontrapasa onartu eta gero, Nafarroakoak aurki Parlamentura igorriko du. Carlos Irujo Adecana-ko idazkariaren iritziz (Nafarroako Ehiztarien Elkarte) herrialdean ere baiezkoa lortuko du, alderdi gehienak alde daudelako. Ekologistek informazioa desitxuratu besterik ez dutela egin dio.

EHIZTARIEN TIRO HOTSEK ETA solasaldi zalapartatsuek mendia bereganatu dute. Afrikatik datozen hegaztien ehiza hasi den seinale. Irujo ere, elkarteko gora-beherak eta lanak uzten dioten heinean, usategi edo barrutiren batera hurbiltzeko asmoa du.

■ **Madrilgo Gobernuak kontrapasa onartu berri du eta Nafarroakoak Parlamentura igorriko du baimentzen duen edo ez erabakitzeko. Pozik egonen zarete, ezta?**

Bai. Aspaldian genbiltzan hori lortu nahirik eta pozik gaude. 1987ko Basa Hegaztien Europako araudiak, salbuespen batzuekin bada ere, kontrapasa debekatu zuen. Legeak, era berean, Gobernu bakoitzari dauden arau murriztaileenak ezartzeko baimena ematen zion eta ICONAK salbuespen hori hartu zuen aintzat. Teorian ehiztarien interesak defendatzeko bazegoen ere, kontrapasa erabat debekatu zuen. Orain Estatuko 1989ko Ingurugiro Legearen moldaketarekin lortu dena da komunitate autonomo bakoitzak kontrapasa arautzeko baimena. Nafarroan badirudi afera nahiko argi dagoela. UPN, CDN eta EA ados daude; HBk zer iritzi duen ez dakigu, ez duelako erabat definitzen, eta PSN eta IU aurka daude.

■ **Dena den, talde ekologistak, eta horien artean, Ugatzak, ez du berria begi onez ikusten. Haren irudikoz egin diren hegazti populazioen azterketak ez dira fidagarriak. Pagausoa ehizatzeke moduan egon arren, txolomak habia gero eta gutxiago egiten duela dio eta hegazti horren populazioak atzera eginen lukeela.**

Guk ez dugu espezierik eskatu. Nafarroako Gobernuko teknikariek egindako ikerketen arabera zehaztu behar dute zein hegazti ehiza daitekeen eta zein ez. Gainera, onar daitekeen



● LUIS AZANZA

trapasa oso mugatua da eta ingurugiroa errespetatuz. Guk ez dugu behin ere esan txolomoa kontrapasan ehiza daitekeenik. Usoaz, anaticaz eta oilagorraz mintzatu gara, baina hori teknikariek erabaki behar dute. Jakin badakigu urtero 10 eta 15 milioi uso bitarte pasatzen direla Nafarroatik, eta 1990ean izan zen azken kontrapasan 2.000 akabatu ziren.

■ **Administrazioak ezarritako kontrol zorrotza onartuko duzuela diozue, baina SEOk Espainiako Ornitologia El-**

karteak kontrol horiek ez daudela salatu du behin baino gehiagotan.

Gure ustez, Ingurugiroaren Babeserako Koordinakundeak (CODA), SEOk eta beste talde ekologista batzuek informazioa erabat desitxuratu dute. Espainiako Kongresuan onartu zen kontrapasa eta Senatuan geldiarazi zuten. Horregatik atzeratu zen hainbeste legalizazioa eta sortu zen iskanbila. Ekologistek gaiaren inguruan ez dute demagogikoki hitz egin behar. Ilegala balitz Europako beste herrialde

soslaia

Carlos Irujo Berueta iruindarra abokatua da eta ingurugiro gaietan aditua. Adecana-ko ehizaren afizioak bultzatuta sartu zen. Ehizatzea gustuko duen arren, nahiago omen du basa piztiei eta hegaztiei argazkiak atera, eta bidenabar, naturaz gozatu.



Nafarroako Ehiztarien Elkarte duela hiru urte sortu zen, ehiztarien premiei erantzuteko. Irujo dioenez, herrialdeko ehiztariak ez zuten behar bezalako ordezkariarik Administrazioaren eta gizartearen aurrean. «Ehiztarien arazoak eta formakuntza ez ziren aintzat hartzen eta horretan lanean hasi ginen», gogoratu du. Egun 4.500 bazkide baino gehiago ditu.



Dena den, Nafarroan ADECANAZ landa bada Ehiztarien Federazioa ere. Bi erakundeak ez dira kontrajarriak, Irujoen idurkoz: Federazioak ehiza kirol lehiaketa

moduan lantzen du eta Adecana aisiarako ehizaz arduratzen da. «Baki osagarriak gara, bi besok dituen bide beretik goaz», azpimarratu du.

asko ez liriteke ehizatzen ariko. Aurka badaude ikerketa eta arrazoi serioetan oinarrituta izan da dila. Legeak kontrapasan ehizatzen uzten badigu ehizatuko dugu. Legeak dio Administrazio bakoitzak toki tradizionaletan — lehenago kontrapasan ehizatzen zen lekuetan — kontrolpeko bal-

dintzetan eta modu selektiboan baimentzen dela kontrapasa. Era berean, salbuespenen kasuan Madrilgo Senatuak aldaketa bat egin du eta horretan esaten da salbuespenen irizpidea Europako Elkarteko Epaitegiak ezarritakoen arabera izan behar dela. Praktikan kontrapasarekin ehizatzen dena huskeria da eta ongi egiten bada ez du kalterik sortzen.

■ **Herrialdeko Gobernuak datozen hamar urteetan Nafarroako Ehizaren Plan Estrategikoa aurkeztu du. Zer iruditzen zaizue?**

Nafarroako Gobernuak ehizaz kezkatzen hasia da eta, batez ere, ongi arautzea nahi genuke. Gaiak eragina du Nafarroan dauden 32.000 ehiztariengan eta, betiere ingurugiroa errespetatuz, ehizak dituen praktikazailen arabera aintzat hartzea nahi genuke.

■ **Gobernuak emandako datuen arabera, ehiztariak urtero 2.500 milioi pezeta (100 milioi libera) gastatzen dute Nafarroan eta herrialdeko toki batzuetan. Diru iturri eta garapenerako elementu omen da. Non gauzatzen da?**

Ehizak dirutza handia mugiarazten du eta herrialdeko kanpokoek gero eta gehiago eskatzen dituzte kotoak. Herri askotan, kotoak bertako ehiztari elkarteak merkeago utzi beharrean enkantera ateratzen dituzte. Orduan, 300.000 pezetan utzi beharrean enkantera ateratzen dute bi milioi pezetan. Beraz, ondasun asko ez dituen herri batek gai hau begi onez ikusten du, dirua lortzen delako. Ehizak eta interes ekonomikoak beti uztarrarian joan beharko lukete. Nafarroako iparraldeko udal batzuk usategi postuak saltzen ari dira eta postu batengatik bi milioi pezeta ordaintzen duenik bada. Baina herrietan gero eta jende gutxiagok du ehizatzeke eskubidea, nahiz eta lur sailak handiagoak izan. Hori dela eta, nahi duenak ehiza dezan oso garrantzitsuak dira barruti sozialak. Urbasa-Andiako eskatu zuen Adecana eta beste batzuk ere nahi litzuzke. Kotoa Gobernuarena litzateke, eta Antolakuntza zinegetikorako plana egin ondoren zozketen arabera erabakiko litzateke.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Lanean hasteko garaia

ITXURA GUZTIEN ARABERA IRAILEKO be-roak segida izanen du larrazkene-ko giro politikoan. Sanjuanetatik Sanmigeletarako festaldi luzea amaiturik (barkatuko al didate atarrabiarrrek?) orain aio erran beharko prozesio, entzierro, zerrien lasterketa eta mundu osoan lurralde tiki hau eza-gun egin duten gainerako kultur ekitaldiel.

Lanean hasteko garaia helduta, nor bere zereginen ari da dagoeneko. Miguel Sanzen Gobernuak urtebete egin du Diputazioaren jauregian eta, egia erran, kontent egon daiteke, gauza jakina baita irautea, batez ere 50 laguneko Parlamentuan hamazazpi boto bertzerik ez dituenarentzat, irabaztea dela. Egia da orain arte UPNkoen eskutik helduta ibili diren sozialisten kongresuak egoera aldaraz lezakeela. Baina izatezko bikotei bezala gertatzen zaie hauei ere, aunitz urtez elkarrekin bizi ondoren bereizketa sakramendu guztiekin ez-kondutakoei bezain zail egiten zaie.


Epaitegiak ere kurtso politikoaren hasierako erreferentzia izanen dira. Alde batetik, HBko agintariak epaituko dituztelako eta, bertsalde, egun batetik bertzera Itoitzi buruzko epaia ezagutuko dugulako. Bigarrena da, Diputazioko agintarien lehen urtebetetze goxoa mikatz dezakeen bakarra.

Tira, epaiak obra geldituko duen ez dakit, baina inork erantzukizun politikorik bere gain hartuko duela pentsatzea inozokeria hutsa iruditzen zait. Eta hala gertatuko balitz, berehala erantzukizun politikoa onartu duenarendako monumentua eskatuko nuke. Behin huts egin zuela onartu zuen politikorekin omenez litzateke inskripzioa. Gero kopia tikiak egin eta, urtero, Gabonetan horietako bat bidaliko nuke alderdi guztien egotzetara, jaingoaren pareko izanagatik ere politikoei, noizean behin, zerbait gaizki egin dezaketela eta onartzea ona dela gogoratzeke.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Elizondo:** Txema Artetak kontzertua eskainiko du Casino tabernan, gaur, 22:30etan.



► **Lekunberri:** Javier Sunek kontzertua emanen du gaur, 22:00etan Ainhoa tabernan.

► **Zangoza:** Josetxo Goia-Aribek eta Pello Ramirezek Bide baterako musika egitarauaren azken kontzertua joko dute gaur, San Salvador elizan. Emanaldia 20:00etan izanen da.

► **Iruñea:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoa gaur Gaiarre Antzokian ariko da 20:00etan.

LEHIAKETAK

► **Atarrabia:** Udalak, Kultura eta Gazteria Zerbitzuaren bitartez, Besta Jira II. Argazki Lehiaketa antolatu du. Lanak koloretan edo txuribeltzean aurkeztu daitezke azaroaren 14a baino lehen Kultur Etxean. Lehiaketan herrian bizi diren 16 urtez goitiko edonork parte har dezake. Egile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal izanen ditu. Txuribeltzean zein koloretan aurkeztutako lanek bi sari izanen dituzte. Bi modalitateetan irabazleak 30.000 pezeta jasoko ditu eta bigarrenak 15.000 pezeta.

► **Iruñea:** Sex Haizegoak pintu-

ra erotiko lehiaketa antolatu du. Hemezortzi urtez goitikoek har dezakete parte. Lanaren neurria gutxienez 60 zentimetrokoa izanen da, eta gehienez 100ekoa. Pinturak Sex Haizegoa, Gonzalez Tablas kaleko 3an aurkeztu behar dira. Informazio gehiago 15-42-31 telefonon lor daiteke.

ERAKUSKETAK

► **Iruñea:** Lacava Galerian Jokin Manzanosen lanak ikusteko aukera dago urriaren 12ra arte. Haiku poema japoniarretan oinarritutako margoak eskegi ditu paretan.

► **Zangoza:** Antonia Laitaren olioak oraindik bistatu ez

badituzu oraindik baduzu aukera etzirarte. Lanak Zangozako Udalaren Kutur Aretoan lekutu dira.

BESTELAKOAK

► **Iruñea:** Sakanako IV. Txirrindula Eguna korrituko da etzi goizeko 9:30etan. Txirrindulari proba Foru Plazatik aterako da, eta bailara zeharkatu eta gero helmuga Altsasun izanen du.

► **Arbizu:** Bihar IV. Duatloia egingen da arratsaldeko 4:30etan. Izena eman nahi duenak 46-48-66 telefonora deitu behar du goizez.

► **Barañain:** Heldu den asteazkenean zabalduko da Ludoteka, berriro ere, 6 eta 12

urte bitarteko umeentzat. Euskaraz ari nahai duenarentzat astelehen eta asteazkenean 17:00etatik 19:00etara.

► **Iruñea:** Iruñeko Udalak sormenezko tailerrak antolatu ditu aurten ere. Guztira hamasei ikastaro izanen dira: argazkigintza, pintura eta modelatu artistikoa, grabatua, ehungintza, txalaparta, sukaldaritza, euskal dantzak, areto dantzak, dantza etnikoak, aerobic, irratia, antzerki teknikak, Yoga, Animazioa eta multimedia eta zeramikak. Izen ematea urriaren 6tik 10era da Gaztediaren Etxean, arratsaldeko 6:00etatik 9:00ak arte. Ikasturtea urriaren 13an hasiko da.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini.....



"Egurra sutondoan: hor egote hutsarekin berotzen du"

JUAN KRUZ IGERABIDE

EPAITZANAIK
NEGURRA ETAIKATZA